

### • 1.3.5.- JASANGARRITASUN IRIZPIDEAK

**Europa 2020 estrategia eta Garapen iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020** betetze aldera, **ikastetxeek jasangarritasun irizpideak eta baliabideen kontsumoa murrizteko eta kontrolatzeko neurriak sistematikoki txertatu behar dituzte eskolako bizitzan.**

Ilido honetan beharrezkoa da ikastetxeak bere **jasangarritasun konpromiso propioak** gauzatzea, bere **curriculum** proiektu propioari dagokienez zein **kudeaketa**rekin eta komunitatearen **parte hartzea**rekin zerikusirik duten praktikei dagokienez. Eta ondorioz beharrezkoa da ere ikastetxeek jasangarritasunaren aldeko haien helburuak eta jarduerak **beren hezkuntzako antolamendu-dokumentuetan (IHP, ICP, AJA, KP, ... )** barneratzea.

Dokumentuetan honako aspektu hauek zehaztuko dira:

- Ikastetxearen jasangarritasunaren aldeko **konpromisoak** eta **helburuen** azalpena.
- Jasangarritasunaren curriculum txertaketa
- **Erosketa berdeko** irizpideak
- **Mugikortasun** irizpideak
- **Tokien, baliabideen** eta **hondakinen** kudeaketa
- **Ikastetxean** eta **inguruan parte hartzeko** bideak
- Irizpideen kontrol eta jarraipenerako **adierazleak**, haien **ebaluaziorako**.

Gainera, giza eta ingurumen beharrei erantzuteko prozesu batean eta bere ingurua hobetzeko konpromisorako baloreak eta jarrerak sustatzeko, ikastetxe bakoitzak ikasturtez ikasturte berrikusten, zabalitzen eta indartzen joango da jasangarritasunaren aldeko konpromisoak, helburuak eta jarduera irizpideak, departamentu honek sustatutako Eskolako Agenda 21 programan parte hartzen duten ikastetxeek egiten duten bezala.

Urteko planak ikasturte honetan landuko diren jasangarritasun irizpide berriak bilduko ditu.

Horretarako INGURUGELA Ingurumen Hezkuntzarako zerbitzuaren laguntza izango dute.